**factores que inciden en las condiciones de trabajo de las trabajadoras y trabajadores.** El Gobierno Vasco busca favorecer la calidad de vida en el trabajo en las empresas de Euskadi a través del fomento de las siguientes líneas de acción:

- La calidad en el empleo, orientada a la mejora en la empleabilidad de las trabajadoras y trabajadores, tanto desde el punto de vista de un horizonte de estabilidad y continuidad en el puesto de trabajo, como del crecimiento profesional gracias a las oportunidades de formación y carrera profesional.
- La igualdad de oportunidades en unas relaciones laborales basadas en la no discriminación y en el respeto de la diversidad, tanto en el acceso al mercado laboral como en la gestión de las propias empleadas y empleados - La salud laboral, mediante los esfuerzos que hacen las empresas para integrar en sus políticas y procesos la prevención de riesgos, la seguridad, la higiene y la salud.
- El equilibrio entre la flexibilidad interna en las relaciones laborales según las exigencias del mercado, y la satisfacción de la seguridad en el empleo para sus empleados y empleadas.
- El diálogo social teniendo en cuenta el nivel de participación de las trabajadoras y trabajadores, el tratamiento de los conflictos laborales, y el respeto de los derechos sindicales, fomentando la transparencia y la información.

- Los esfuerzos que las empresas realizan en su estructura y su organización para dar respuesta a las necesidades de los empleados para equilibrar su vida profesional y personal.



## Zer ulertzen da bizi-kalitateaz?

Azken batean, **langileen lan-baldintzetan eragiten duten faktoreak hobetzeraz zuzendutako ekintza-ildo ezberdinak batzearen ondorioa dela esaten da laneko bizi-kalitatea definitzerakoan.** Eusko Jaurlaritzak ondorengo ekintza-ildoak sustatuz egin nahi du Euskadiko enpresetan laneko bizi-kalitatearen alde:

- Enpleguaren kalitatea, langileen enplegagarritasuna hobetzeraz zuzenduta, hala lanpostuan egonkortasuna eta jarraitutasuna egotearen ikuspegitik, nola hazkuntza profesionalarenetik, prestakuntza eta ikasketa profesionalak egiteko aukerei esker.
- Aukera-berdintasuna, diskriminaziorik ezean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako lan-harremanetan, bai lan-merkatuzterakoan, bai langileen euren eta laneko osasunaren kudeaketan, enpresek beren politika eta prozesuetan arriskuen prebentzioa, segurtasuna, higiena eta osasuna txertatzeko egiten duten ahaleginez.
- Oreka, merkatuaren eskakizunen arabera lan-harremanetan dagoen barne-malgutasunaren eta langileei enpleguan segurtasuna eskaintzeko pozaren artean.
- Gizarte-elkarrizketa, langileen parte-hartze maila, lan-gatazken tratamendua eta eskubide sindikalekiko errespetua aintzat hartuta, eta gardentasuna eta informazioa sustatuz.

- Langileek beren bizi-berria profesionala eta pertsonala orekatzeko, enpresek beren egitura eta antolakuntzan egiten dituzten beharrei erantzuteko egiten dituzten ahaleginak.



## ¿Qué se entiende por calidad de vida?

### Derechos reconocidos y calidad de vida en el trabajo

La **regulación legal de los aspectos** propios de la calidad de vida en el trabajo se sustenta en la aplicación de derechos fundamentales y derechos laborales previstos en normas y tratados internacionales que también han sido recogidos por la Constitución Española, el ordenamiento jurídico laboral y el ordenamiento jurídico de la función pública.

- **Derecho a la dignidad humana** previsto en el Artículo 1 de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea, el Artículo 10 de la Constitución Española, el Art. 4.2.e) del Estatuto de los Trabajadores y el Art. 14.1.h) del Estatuto Básico del Empleado Público.
- **Derecho a la integridad física y moral** previsto en el Artículo 3 de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea, el Artículo 15 de la Constitución Española y cuyo desarrollo y aplicación también afecta al derecho a la salud previsto en el Art. 43 de la Constitución Española, la Ley 31/1995 de 10 de noviembre de Prevención de Riesgos Laborales, la Ley 14/1986 de 25 de abril General de Sanidad y la Ley 8/1997 de 26 de Junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi.
- **Derecho a la igualdad de trato**, desarrollado por el capítulo III de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea, el artículo 13 del

Tratado de la Unión Europea, el Artículo 14 de la Constitución Española, los Artículos 4.2.c) y 17 del Estatuto de los Trabajadores, el Artículo 14.1.i) del Estatuto Básico del Empleado Público, la ley 62/2003, la Ley Orgánica 3/2007 sobre Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y la Ley Vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

- **Derecho a la vida privada y familiar**, a la intimidad, al honor y la propia imagen previstos en el Artículo 7 de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea, el Artículo 18 de la Constitución Española, el Art. 4.2.e) del Estatuto de los Trabajadores y el Art. 14.1.h) del Estatuto Básico del Empleado Público.

Otros derechos laborales básicos, como el derecho al descanso y la limitación de la jornada laboral y la conciliación del trabajo con la vida familiar y personal, se encuentran regulados en los Art. 34 a 38 del Estatuto de los Trabajadores, los Artículos 14.1.j) y 47 a 51 del Estatuto Básico del Empleado Público. En Euskadi se han dictado normas como el Decreto 177/2010, de 29 de junio de ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral.

## Zer ulertzen da bizi-kalitateaz?

### Eskubide aitortuak eta bizi-kalitatea lanean

Laneko bizi-kalitatearen beraren **alderdien lege-arautzea** nazioarteko arau eta hitzarmenetan aurreikusitako oinarrizko eskubideen eta lan-eskubideen aplikazioan oinarritzen da. Horiek guztiak, Espainiako Konstituzioan, laneako antolamendu juridikoan eta funtzio publikoaren antolamendu juridikoan jaso dira.

- **Giza duintasunerako eskubidea**, honako hauetan aurreikusita dagoela: Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 1. artikuluan, Espainiako Konstituzioko 10. artikuluan, Langileen Estatutuko 4.2.e) artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 14.1.h) artikuluan.
- **Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea**, honako hauetan aurreikusita dagoela: Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 3. artikuluan, Espainiako Konstituzioko 15. artikuluan, horren garapenak eta aplikazioak Espainiako Konstituzioko 43. artikuluan aurreikusitako osasunerako eskubideari ere eragiten diotela, Laneko Arriskuen Prebentzioko azaroaren 10eko 31/1995 Legean, Osasunari buruzko apirilaren 25ko 14/1986 Lege Orokorrean eta Euskadiko Osasuna antolatzeke ekainaren 26ko 8/1997 Legean.

- **Tratu berdinerako eskubidea**, honako hauetan garatuta dagoela: Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko III. kapituluan, Europar Batasunaren Ituneko 13. artikuluan, Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan, Langileen Estatutuko 4.2.c) eta 17. artikuluetan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 14.1.i) artikuluan, 62/2003 Legean, Emakumeen eta Gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legean.
- **Bizitza pribatu eta familiarerako**, intimitaterako, ohorerako eta norberaren irudirako **eskubidea**, honako hauetan aurreikusita dagoela: Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 7. artikuluan, Espainiako Konstituzioko 18. artikuluan, Langileen Estatutuko 4.2.e) artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 14.1.h) artikuluan.

Laneko oinarrizko beste eskubide batzuk, eta tartean, atsedenerako eta lanaldia mugatzeko eta lana etxeko eta norberaren bizitzarekin bateragarri egitekoak, Langileen Estatutuko 34. artikulutik 38.era eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 14.1.j) artikuluan eta 47.etik 51.era araututa daude. Euskadin, etxeko eta laneko bizitza bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua bezalako arauak eman dira.

## ¿Qué se entiende por calidad de vida?

### Estudios promovidos por el Gobierno Vasco sobre calidad de vida en el trabajo

El Gobierno Vasco ha promovido diversas iniciativas de fomento de la calidad de vida en el trabajo, como por ejemplo:

- Estudio sobre las **implicaciones y posibles consecuencias de un cambio de horario laboral en el tejido empresarial de la CAPV**, de cara a conseguir una mayor conciliación de la vida laboral y familiar
- Definición de una **metodología de implantación de un nuevo modelo horario laboral** en las empresas vascas, a través de la realización de una prueba piloto en empresas seleccionadas
- Ayudas en el marco de la política de conciliación de la vida familiar y laboral y puesta en marcha del **portal de conciliación** del Gobierno Vasco ([www.euskadi.net/concilia+](http://www.euskadi.net/concilia+)). Este portal es una herramienta integral que aporta información destinada a empresas, personas trabajadoras y autónomas, y sindicatos y que estima el coste-beneficio económico de la conciliación.
- Desarrolladas por el departamento para fomentar la conciliación. Concilia+ estará a disposición de las empresas, sindicatos, personas trabajadoras y autónomas para fomentar la información y reflexión sobre la conciliación de la vida familiar, personal y laboral.
- El proyecto piloto de **teletrabajo para funcionarios vascos**, por la Viceconsejería de Función Pública del Gobierno Vasco.
- El Distintivo **“Entidad colaboradora en Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres”**, por Emakunde.
- La evaluación del **impacto de los planes de igualdad en la competitividad de las empresas**, por Emakunde.
- El **Premio OSALAN de Prevención de Riesgos Laborales** con el fin de destacar y reconocer a aquellas empresas o entidades radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco que se hayan destacado por el desarrollo de una actividad relevante en materia de seguridad y salud laboral.

## Zer ulertzen da bizi-kalitateaz?

### Eusko Jaurlaritzak laneko bizi-kalitatearen inguruan sustatutako azterlanak

Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen bultzatu ditu laneko bizi-kalitatea sustatzearen alde, hala nola:

- **Lan-ordutegiaren aldaketak EAEko enpresa-ehunean izan ditzakeen ondorioei buruzko azterlana**, laneko eta etxeko bizitza bateragarriago egite aldera.
- **Euskal enpresetan lan-ordutegiaren eredu berria ezartzeko metodologia** definitzea, aukeratutako enpresetan proba pilotua eginez.
- Laguntzak laneko eta etxeko bizitza bateragarri egiteko politiken barruan eta Eusko Jaurlaritzaren **bateragarritasunari buruzko ataria** ([www.euskadi.net/concilia+](http://www.euskadi.net/concilia+)) abian jartzea. Atari hori, enpresei, besteren konturako langileei eta langile autonomoei eta sindikatuei zuzendutako informazioa emateko tresna integrala da eta bateragarritasunaren kostu-onura ekonomikoa kalkulatzeko.
- Bateratu+ enpresa, sindikatu, besteren konturako langile eta langile autonomoen eskura egongo da, laneko, etxeko eta norberaren bizitza bateragarri egiteari buruzko informazioa eta hausnarketa bultzatzeko.
- **Euskal funtzionarioentzako telelanaren** proiektu pilotua, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Sailburuordetzak bultzatuta.
- Emakunderen **“Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari laguntzen dion erakundea”** adierazgarria.
- **Enpresen lehiakortasunean** berdintasun-planek duten inpaktuari buruzko ebaluazioa, Emakundek sustatuta.
- **Laneko Arriskuen Prebentzioko OSALAN Saria**, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izanik laneko segurtasun eta osasunaren alorrean jardura garrantzitsu bat garatu izanagatik nabarmendu diren enpresak eta erakundeak bereizi eta aitortzea.



## Criteria para ser considerada una empresa que cumple los estándares de Calidad de Vida en el Trabajo

**A**unque el concepto de calidad de vida en el trabajo pueda ser considerado demasiado complejo, el Gobierno Vasco ha elaborado un conjunto de criterios para facilitar su comprensión. De esta forma, se estandarizan los puntos clave y se fomenta su aplicación a la realidad que viven las empresas vascas.

Los criterios más destacados están relacionados con:

### Aspectos relativos al acceso al empleo y a las condiciones de trabajo

- El compromiso de la empresa por un empleo estable y duradero en el tiempo, mediante políticas de estabilidad en el empleo que den preferencia a la contratación indefinida.
- El compromiso demostrable en el tiempo con el mantenimiento del empleo.
- El tratamiento responsable de las pérdidas de puestos de trabajo, que minimice los impactos negativos para las personas que las padecen.
- La aplicación de medidas encaminadas a facilitar el acceso a ofertas formativas de calidad y adaptadas a las necesidades de las trabajadoras y los trabajadores.

- La existencia de mecanismos que permitan la evaluación y la mejora de las competencias, conocimientos y habilidades profesionales de las trabajadoras y los trabajadores mediante criterios justos y objetivos.
- La implicación de quienes gestionan equipos o personas, en el desarrollo profesional de éstos, mediante la valoración periódica sobre su desempeño.
- La transparencia en las expectativas propias de cada puesto de trabajo, que la empresa considera referencia para la valoración del desarrollo profesional de quienes los ocupan.
- La existencia de modelos de carrera profesional que en la medida de las posibilidades de la empresa, planifiquen itinerarios de recorrido profesional según los puestos de trabajo.
- La existencia de medidas de compensación que reconozcan el desarrollo profesional de las trabajadoras y los trabajadores, de manera individualizada y según sus capacidades y méritos.
- La percepción de las trabajadoras y los trabajadores sobre el compromiso de su empresa en cuanto a estabilidad, calidad y adecuación de la formación, y desarrollo profesional en su empresa.

## Laneko Bizi Kalitatearen estandarrak betetzen dituen enpresatzat hartzeko irizpideak

**L**aneko bizi-kalitatearen kontzeptua konplexuegitzat jo badaiteke ere, Eusko Jaurlaritzak hainbat irizpide eman ditu errazago ulertu ahal izateko. Horrela, funtsezko puntuak estandarizatu eta euskal enpresek bizi duten errealitatean aplikatzearen alde egiten da.

Hona hemen zeren ingurukoak diren irizpiderik nabarmenenak:

### Laneratzeari eta lan-baldintzei buruzko alderdiak

- Enpresaren konpromisoa enplegu egonkor eta denboran iraunkorrek, enpleguan egonkortasuna egoteko kontratazio mugagabeari lehentasuna emango dioten politiken bitartez.
- Enpleguari eutsiz denboran froga daitekeen konpromisoa.
- Lanpostu-galeren tratamendu arduratsua, jasaten duten pertsonengan inpaktu negatiboak ahalik eta txikiak izan daitezten.
- Langileen beharretara egokitutako kalitatezko prestakuntza-eskaintzak errazago lortzera zuzendutako neurrien aplikazioa.
- Langileen gaitasunak, ezagutzak eta trebetasun profesionalak bidezko irizpide objektiboen bitartez ebaluatu eta hobetzea ahalbidetuko duten mekanismoak egotea.
- Talde eta pertsonak kudeatzen dituztenen inplikazioa horien garapen profesionalan, beren lanaren aldezkatu balorazioaren bitartez.
- Lanpostu bakoitzaren aukeren gaineko gardentasuna, enpresak betetzen dituztenen garapen profesionalaren balorazioa erreferentziatzat hartuta.
- Enpresaren aukeren heinean eta lanpostuen arabera, ibilbide profesionalaren bideak planifikatzen dituzten ibilbide profesionalen ereduak izatea.
- Langileen garapen profesionala aitortzen duten banakako eta gaitasun eta merezimenduen araberako konpentsazio-neurriak izatea.
- Beren enpresak egonkortasunaren, prestakuntzaren kalitatearen eta egokitasunaren inguruan duen konpromisoaz eta beren enpresan profesionalki garatzeko duten aukeraz langileek duten iritzia.

## Criteria para ser considerada una empresa que cumple los estándares de Calidad de Vida en el Trabajo

### Aspectos relativos a la igualdad de oportunidades

- La equidad retributiva entre hombres y mujeres para similares niveles de responsabilidad.
- La disponibilidad de fuentes de información que permitan realizar análisis y seguimientos en materia de igualdad de género.
- El compromiso de la dirección de la empresa con la igualdad de oportunidades y el respeto de la diversidad de sus trabajadoras y trabajadores.
- El esfuerzo de la empresa por lograr la integración profesional de colectivos desfavorecidos o marginados.
- La existencia de políticas enfocadas a mejorar la convivencia entre la diversidad de trabajadoras y trabajadores de la empresa.
- La no discriminación en el acceso al empleo, a la promoción, a las oportunidades de carrera profesional, u opciones formativas.

- La percepción de las trabajadoras y los trabajadores sobre el compromiso de su empresa en cuanto a reconocer las necesidades de los diferentes grupos que la integran y la igualdad de oportunidades.

### Aspectos relativos a la salud laboral

- La participación de la empresa en foros, distintivos, publicaciones o actos en general, que estén orientados a la difusión y a la concienciación en materia de salud laboral.
- La aplicación de medidas de bienestar físico, de ergonomía, o de hábitos de vida saludable, instalaciones o servicios relacionados con la promoción de la salud en el trabajo en el centro de trabajo, más allá de las normas establecidas legalmente (por ejemplo la puesta a disposición de las trabajadoras y de los trabajadores de instalaciones tales como gimnasio, de servicios como el de fisioterapia, etcétera).
- La percepción de las trabajadoras y los trabajadores sobre el compromiso de su empresa en cuanto a prevención de riesgos, seguridad, higiene y salud.

## Laneko Bizi Kalitatearen estandarrak betetzen dituen enpresatzat hartzeko irizpideak

### Aukera-berdintasunari buruzko alderdiak

- Antzeko erantzukizun-mailetarako gizonen eta emakumeen soldatak bidezkoak izatea.
- Genero-berdintasunaren inguruko azterlanak eta jarraipenak egitea ahalbidetuko duten informazio-iturriak izatea.
- Enpresaren zuzendaritzak aukera-berdintasunarekiko duen konpromisoa eta langileen aniztasunarekiko errespetua.
- Enpresaren ahalegina, mesprexatu eta baztertutako kolektiboen integrazio profesionala lortzeko.
- Enpresako langileen aniztasunaren artean bizikidetzat hobetzera zuzendutako politikak izatea.
- Enplegua lortzerakoan, mailaz igotzerakoan eta ibilbide profesionala egiteko aukerak edo prestakuntza-aukerak ematerakoan diskriminaziorik ez izatea.
- Langileek, enpresa osatzen duten talde ezberdinen beharrak eta aukera-berdintasuna aitortzeko enpresaren konpromisoaz duten iritzia.

### Laneko osasunari buruzko alderdiak

- Enpresak, laneko osasuna hedatu eta kontzientziatzera zuzenduta dauden foro, adierazgarri, argitalpen edo ekitaldi orokorretan parte-hartzea.
- Ongizate fisikoaren, ergonomiaren, bizitzeko aztura osasungarriaren eta lantokiko lanean osasuna sustatzeari lotutako instalazio edo zerbitzuen inguruko neurriak aplikatzea, lege ezarritako arauetatik haratago joanda (adibidez, langileen eskura gimnasioa bezalako instalazioak, fisioterapia-zerbitzuak eta abar jartzea).
- Langileek beren enpresak arriskuen prebentzio, segurtasun, higiene eta osasunarekiko duen konpromisoaz duten iritzia.

## Criteria para ser considerada una empresa que cumple los estándares de Calidad de Vida en el Trabajo

### Aspectos relativos a la flexibilidad interna

- La existencia de políticas que permitan la flexibilidad en la incorporación de nuevas trabajadoras y nuevos trabajadores, con una perspectiva de permanencia en el largo plazo.
- La puesta en práctica de medidas alternativas al reajuste de plantilla a través de medidas de flexibilidad interna, que se enmarque en un entorno de diálogo social con transparencia e información.
- La existencia de fórmulas que permitan mantener niveles de retribución atractivos, competitivos y equitativos internamente, en consonancia con la evolución de la empresa.
- La existencia de medidas para facilitar la recolocación o mitigar los efectos de la ruptura en las relaciones laborales, en caso de producirse.
- La percepción de las trabajadoras y los trabajadores sobre el compromiso de su empresa en cuanto al equilibrio entre flexibilidad y seguridad de las relaciones laborales.

### Aspectos relativos al diálogo social

- Cultura responsable de la negociación colectiva y del acuerdo basada en un modelo de diálogo social, participación y transparencia en la información.
- La participación de las trabajadoras y los trabajadores en los resultados económicos de la empresa, según la aportación realizada.
- La participación de las trabajadoras y los trabajadores, bien directamente bien a través de sus representantes, en la toma de decisiones empresariales que les puedan afectar, o en la toma de decisiones sobre la propia gestión de la empresa.
- La participación de las trabajadoras y los trabajadores mediante la existencia de canales que permitan la aportación de ideas y sugerencias que se tendrán en cuenta en los procesos de toma de decisiones.
- La existencia de canales o procedimientos de resolución de conflictos laborales alternativos a la mediación judicial, arbitrados como sistemas alternativos de mediación propia dentro de la organización de la propia empresa.
- La percepción de las trabajadoras y los trabajadores sobre el compromiso de su empresa en cuanto al nivel de participación de aquéllos, el tratamiento de los conflictos laborales, y el respeto de los derechos sindicales.

## Laneko Bizi Kalitatearen estandarrak betetzen dituen enpresatzat hartzeko irizpideak

### Barne-malgutasunaren inguruko alderdiak

- Langile berriak sartzeko eta bertan epe luzean gelditzeko malgutasuna ahalbidetuko duten politikak izatea.
- Barne-malgutasuneko neurrien bitartez plantillaren doikuntzaren ordezkariak gauzatzea, gizarte-elkarrizketaren barruan eta gardentasun eta informazioarekin.
- Enpresaren bilakaerarekin bat, soldata-maila erakargarri, lehiakor eta bidezko eustea ahalbidetuko duten formulak izatea.
- Lanpostu berria betetzea edo lan-harremanen haustura egonez gero horren ondorioak arintzea erraztuko duten neurriak izatea.
- Lan-harremanen malgutasunaren eta segurtasunaren arteko orekarekiko enpresak duen konpromisoaz langileek duten iritzia.

### Gizarte-elkarrizketaren inguruko alderdiak

- Negoziazio kolektiboaren eta gizarte-elkarrizketan, parte-hartzean eta informazioaren gardentasunean oinarritutako akordioaren kultura arduratsua.
- Langileek, egindako ekarpenaren arabera, enpresaren emaitza ekonomikoetan parte-hartzea.
- Langileek, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez, eragin diezaieketen enpresa-erabakietan edo enpresaren kudeaketaren beraren erabakietan parte hartzea.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan aintzat izango diren ideiak eta iradokizunak ematea ahalbidetuko duten bideak izanda langileek parte hartzea.
- Lan-gatazkak konpontzeko epailearen bitartekaritzaren alternatiba izan daitezkeen bideak edo prozedurak izatea, enpresaren beraren antolaketaren barruan bitartekaritza-sistema alternatibo bezala arbitratuta.
- Beren enpresak langileen parte-hartzearen mailarekiko, lan-gatazken tratamenduarekiko eta eskubide sindikalen errespetuarekiko duen konpromisoaz langileek duten iritzia



## Criteria para ser considerada una empresa que cumple los estándares de Calidad de Vida en el Trabajo

### Aspectos relativos a la organización del trabajo

- La existencia de medidas que permitan la flexibilidad espacial, o la posibilidad de teletrabajar según las posibilidades de los puestos de trabajo afectados.
- La accesibilidad del centro de trabajo y de sus infraestructuras tomando en consideración las necesidades de movilidad de las trabajadoras y los trabajadores.
- La posibilidad de que las trabajadoras y los trabajadores disfruten de una flexibilidad horaria que les permita armonizar sus horarios y sus obligaciones personales.
- La puesta a disposición de las trabajadoras y los trabajadores de tiempo retribuido para la realización de determinadas actividades personales.
- La ayuda a trabajadoras y trabajadores con cargas familiares o personas dependientes a cargo, a través de la flexibilidad en sus horarios laborales y la concesión de otras ventajas horarias.

- La ayuda económica directa o indirecta a través de servicios o ventajas de otra naturaleza para trabajadoras y trabajadores con cargas familiares o personas dependientes a cargo.
- La percepción de las trabajadoras y los trabajadores sobre el compromiso de su empresa en cuanto a posibilidades de conciliación gracias a la flexibilidad temporal, la flexibilidad espacial y a la ayuda a aquéllos con cargas familiares.



## Laneko Bizi Kalitatearen estandarrak betetzen dituen enpresatzat hartzeko irizpideak

### Lanaren antolaketari buruzko alderdiak

- Eragindako lanpostuen arabera, espazio-malgutasuna edo telelana egiteko aukera ahalbidetuko duten neurriak izatea.
- Lantokiko eta bertako azpiegituretako irisgarritasuna, langileen mugikortasun-beharrak aintzat hartuta.
- Langileek, beren ordutegiak eta betekizun pertsonalak bateragarri egitea ahalbidetuko dien ordutegi malguez gozatzeko aukera izatea.
- Langileen eskura jarduera pertsonal jakin batzuk egiteko denbora ordaindua jartzea.
- Karga familiarrak edo beren kargura menpekotasuna duten pertsonak dituzten langileei, laneko ordutegien malgutasunarekin eta ordutegian bestelako abantailak izanda laguntzea.
- Zuzeneko edo zeharkako laguntza ekonomikoa, karga familiarrak edo beren kargura menpekotasuna duten pertsonak dituzten langileentzat zerbitzuak edo bestelako abantailak ezarritik.

- Enpresak denbora- eta espazio-malgutasunari eta karga familiarrak dituztenentzako laguntzari esker bateragarritasunarekiko duen konpromisoaz langileek duten iritzia.



## Glosario

**Acceso al empleo:** incorporación de una persona a un puesto de trabajo para el cual está cualificada.

**Calidad de vida en el trabajo:** El conjunto de condiciones propiciadas por la empresa, resultado de las distintas acciones adoptadas con incidencia en las condiciones de trabajo, que permite que sus trabajadores y trabajadoras tengan un desempeño profesional agradable y valioso que contribuya a su realización tanto personal como profesionalmente. La calidad de vida en el trabajo contribuye a la calidad de vida absoluta de la sociedad vasca.

**Clima laboral:** percepción sobre la satisfacción derivada de las condiciones o circunstancias físicas, organizativas, sociales y económicas que comparten las trabajadoras y los trabajadores de una empresa.

**Compensación:** retribución, económica y en otros conceptos, percibida por las trabajadoras y los trabajadores por prestar un servicio a su empresa que le permita a ésta alcanzar sus objetivos.

**Conciliación:** armonización propiciada por la empresa que permita que sus trabajadoras y trabajadores compatibilicen satisfactoriamente sus obligaciones laborales con sus obligaciones personales y familiares.

**Cualificación profesional:** aptitud de una persona, tanto física como de conocimiento, adquirido académicamente o por la experiencia, para desempeñar o continuar desempeñando una actividad laboral.

**Desarrollo profesional:** evolución experimentada por un trabajador o trabajadora en el desempeño de su profesión, tanto en conocimientos como en habilidades.

**Diálogo social:** relación entre la propiedad de la empresa y la representación de sus trabajadoras y trabajadores, que tiene por finalidad armonizar los intereses de ambas partes.

**Diversidad:** situación en la cual existe una variedad de religiones, culturas, de generaciones, etcétera, entre las trabajadoras y los trabajadores de una empresa.

**Discriminación:** situación en la cual la empresa da, sin amparo jurídico, un trato diferente a uno o varios de sus trabajadoras o trabajadores respecto del resto atendiendo a aspectos diferentes de su cualificación profesional (motivos religiosos, raciales, de género, políticos, etcétera).

**Empresa:** organización dedicada a actividades industriales, mercantiles o de prestación de servicios que tenga, al menos, un centro de trabajo en Euskadi. Se entenderán incluidos en dicho concepto tanto a las organizaciones empresariales de carácter mercantil o cooperativo, como las asociaciones y las fundaciones.

**Estabilidad:** mantenimiento por la empresa de los compromisos adquiridos con sus trabajadoras y trabajadores en sus respectivos contratos de trabajo, lo cual genera un clima de trabajo que permite a éstos últimos organizar de manera más eficiente su vida más allá del corto plazo y aspirar a su desarrollo profesional.

**Estrés laboral:** tensión sufrida por una trabajadora cualificada o un trabajador cualificado como consecuencia de estar sometido, en el desarrollo de su profesión, a situaciones agobiantes.

## Glosategia

**Laneratzea:** pertsona bat lanpostu batean lanean hastea, lanpostu horretarako kualifikazioa izanda.

**Laneko bizi-kalitatea:** Enpresak bideratutako baldintzak, lan-baldintzei eraginda hartutako ekintza ezberdinen ondoriozkoak, horien bitartez langileek beren lana modu atsegina eta baliagarria betetzen dutenean eta horrek pertsonalki nahiz profesionalki errealizatzearan alde egiten duenean. Laneko bizi-kalitateak euskal gizartearen bizi-kalitatea absolutuaren alde egiten du.

**Lan-giroa:** enpresa bateko langileek baldintza eta egoera fisiko, sozial, ekonomiko eta antolamenduzkoen ondoriozko gogobetetasunari buruz duten iritzia.

**Ordaina:** beren enpresak bere helburuak lortzeko ematen duten zerbitzuagatik langileek jasotzen duten lansari ekonomikoa eta bestelako kontzeptuen bidezkoa.

**Bateragarritasuna:** langileei laneko betekizunak eta betekizun pertsonal eta familiarak egoki bateratzea ahalbidetuko dien enpresak bideratutako harmonizazioa.

**Kualifikazio profesionala:** pertsona batek, lan-jarduera burutzeko edo burutzen jarraitzeko duen gaitasun fisikoa edo ezagutza-gaitasuna, azken hori akademikoki edo esperientziari esker bereganatu duelarik.

**Garapen profesionala:** langileak bere lanbidea garatzerakoan izandako bilakaera, bai ezagutzei, bai trebetasunei dagokienez.

**Gizarte-elkarrizketa:** enpresaren jabeen eta bertako langileen ordezkarien arteko harremana, alderdi bien interesak harmonizatzeko helburua duelarik.

**Aniztasuna:** enpresa bateko langileen artean, erlijio, kultura, belaunaldi eta abar ezberdin ugari dagoenean ematen den egoera.

**Diskriminazioa:** egoera honetan, tratua ezberdina ematen die enpresak langile bati edo bat baino gehiagori, babes juridikorik gabe, kualifikazio profesionalak ez diren alderdiengatik (erlijio, arraza, genero, politika eta abarren arloko arazoak).

**Enpresa:** industria, merkataritza eta zerbitzuen arloko jarduerak burutzen dituen antolakundea, Euskadin, gutxienez ere, lantoki bat izanda. Merkataritza-nahiz kooperatiba-arloko enpresa-erakundeak, zein elkarteak eta fundazioak kontzeptu horretan sartuta daudela ulertuko da.

**Egonkortasuna:** enpresak bere langileekin beren lan-kontratuetan hartutako konpromisoari eustea, horrek sortzen duen lan-giroari esker langileek modu eraginkoragoan antolatzen dute beren bizitza epe laburretik haratago eta garapen profesionala lortzeko helburua izan dezakete.

**Lan-estresa:** langile kualifikatu batek, bere lanbidearen garapenean estaldietan egotearen ondorioz pairatzen duen tentsioa.

## Glosario

**Flexibilidad de la organización del trabajo:** conjunto de medidas adoptadas por una empresa para garantizar que alcanza sus objetivos permitiendo a sus trabajadoras y trabajadores disfrutar de calidad de vida en el trabajo.

**Formación:** adquisición por una trabajadora o un trabajador de los conocimientos necesarios para desarrollarse profesionalmente y desempeñar su profesión de manera más efectiva.

**Mejora en la organización del trabajo:** adaptación por la empresa del trabajo a las capacidades y recursos de las personas, permitiendo el desarrollo de las competencias profesionales, clarificando las funciones y roles de cada puesto de trabajo y haciendo a las trabajadoras y a los trabajadores partícipes de las decisiones que les afectan, mejorando las comunicaciones, reduciendo las incertidumbres sobre el futuro profesional de estos últimos y facilitando la transparencia y participación de todos los agentes en el seno de la empresa.

**Participación:** conjunto de medidas adoptadas por una empresa para que sus trabajadoras y trabajadores tomen parte, además de mediante el desempeño de su profesión, en la actividad empresarial.

**Profesión:** actividad laboral que una persona desarrolla en una empresa y por la que percibe una retribución.

**Recorrido profesional:** plan establecido por una empresa para la evolución de sus trabajadores y trabajadoras en diferentes puestos de la organización.

**Representantes del personal:** los delegados de personal o, en su caso, comités de empresa que representen, según el Estatuto de los Trabajadores, a las trabajadoras y a los trabajadores ante la empresa en los centros de

trabajo de ésta ubicados en Euskadi. Si la empresa no cuenta con órganos de representación de la plantilla, podrán suscribir el informe sus propias trabajadoras y trabajadores. En las cooperativas se considerará a estos efectos que la representación del personal le corresponde al consejo social y, en aquellos casos en los que no exista dicho órgano, al consejo rector.

**Salud laboral:** estado del clima laboral tal que los trabajadores y las trabajadoras de una empresa desempeñan su profesión sin que su salud se encuentre expuesta a peligro alguno.

**Seguridad:** situación propiciada por la empresa que garantiza a sus trabajadoras y trabajadores tanto su salud laboral como un recorrido profesional, y, para el supuesto de no poder continuar garantizándolo, ayudarles a acceder a un nuevo empleo.

**Teletrabajo:** desarrollo por una trabajadora o un trabajador de su profesión fuera físicamente de su lugar de trabajo utilizando para ello los medios puestos a su disposición por la empresa.

**Trabajadora y trabajador:** persona que desarrolla para una empresa, de conformidad a los términos estipulados en un contrato de trabajo, una profesión por cuenta ajena. Las socias trabajadoras y los socios trabajadores en cooperativas tendrán, a estos efectos, la condición de trabajadora y trabajador, respectivamente.

## Glosategia

**Lanaren antolaketaren malgutasuna:** empresa batek bere helburuak lortuko dituela eta bere langileek laneko bizi-kalitateaz gozatuko dutela bermatzeko hartutako neurriak.

**Prestakuntza:** langile batek profesionalki garatzeko eta bere lanbidea ahalik eta modu eraginkorrenean betetzeko beharrezkoak diren ezagutzak bereganatzea.

**Lanaren antolaketa hobetzea:** lan-enpresak pertsonen gaitasun eta baliabideetara egokitzea, gaitasun profesionalen garapena ahalbidetuz, lanpostu bakoitzaren eginkizunak eta rolak argituz, eta langileei eragiten dieten erabakietan esku hartzeko aukera emanez, komunikazioak hobetuz, langileen etorkizun profesionalaren inguruko kezak murriztuz eta enpresaren baitan gardentasuna eta eragile guztien parte-hartzea bideratuz.

**Parte-hartzea:** empresa batek hartutako neurriak, bere langileek dagokien lanbidea betetzeaz gain, empresa-jardueran esku har dezaten.

**Lanbidea:** pertsona batek enpresa batean garatzen duen lan-jarduera eta horregatik ordainsaria jasotzen duenean.

**Lanbide-ibilbidea:** enpresek beren langileak antolaketa-postu ezberdinetan ebaluatzeko ezarritako plana.

**Langileen ordezkariak:** langileen ordezkariak edo, hala badagokio, enpresa-batzordeak, Langileen Estatutuen arabera, langileak ordezkatzeko dituzte

enpresaren aurrean Euskadin kokatuta dauden lantokietan. Enpresan langileak ordezkatzeko organorik ez badago, langileek eurek sinatu ahal izango dute txostena. Kooperatibetan, gizarte-kontseiluari dagokio langileak ordezkatzeko, ondorio horietarako, eta organo hori ez dagoenean, artezkaritza-kontseiluari.

**Laneko osasuna:** langileek beren lanbidearen garaleku duten enpresako lan-giroaren egoera, langileen osasuna arriskutan egon gabe.

**Segurtasuna:** enpresak beren langileei beren lan-osasuna zein lanbide-ibilbidea bermatzean bideratutako egoera, eta, bermatzerik egon ezean, lan berri bat aurkitzen laguntzekoa.

**Telelana:** langile batek bere lanbidea bere lanlekutik kanpo egiten duenean, eta horretarako enpresak eman dizkion baliabideak erabiltzen dituela.

**Langilea:** enpresa batentzat, lan-kontratuan ezarritako baldintzen arabera, besteren konturako lanbidea garatzen duen pertsona. Kooperatibetako langile bazkideak, ondorio hauetarako, langileak izango dira.





EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES



# Laneko Bizi Kalitatea

Guía de calidad de vida en el trabajo

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila  
Departamento de Empleo y Asuntos Sociales

[www.euskadi.net/gizartelan](http://www.euskadi.net/gizartelan)  
[www.euskadi.net/concilia+](http://www.euskadi.net/concilia+)